# AUZO PAISAIAK



**TABAKALERA HEZKUNTZAK EGIAKO ERAGILEEKIN EGINDAKO PROIEKTUA**

**PROYECTO DE TABAKALERA MEDIACIÓN CON AGENTES DE EGIA**

# AURKIBIDEA
# ÍNDICE


Sarrera / Introducción 3

Tabakalera Hezkuntza Mediación 4

Auzo paisaiak 5

Paisaia feministak 8

Ekosistema Egia 13

Soinu paisaiak 17

Paisaia hezitzaileak 21

Balorazioa, galderak eta irekitako lan-ildoak /
Valoración, preguntas y líneas abiertas 24

# SARRERA
# INTRODUCCIÓN

Esku artean duzun argitalpen honek “Auzo paisaiak” du izena. Tabakalera Hezkuntzak eta beste lankide batzuek 2013ko iraila eta abendua bitartean “Ekosistema” izeneko proiektuaren barruan egin duten lanaren lagin bat da. Prozesu honen bidez, espazio bat eratu dugu Egia auzoko zati handi batekin harremanetan jartzeko eta elkarlanean aritzeko. Forma desberdinak sortu nahi izan ditugu, esperimentazioan aritzeko eta lan egiteko, kultura-zentro baten eta bere hurbileko lurraldearen artean, emaitzak konplexuak izango zirela eta negoziazioak egin beharko zirela aurrez onartuta.

Formatu arina, atsegina eta hurbila hautatu dugu.

IPAR Arte Grafikoa eta Josean Abecia arduratu dira diseinuaz eta maketazioaz. Auzoko profesionalak dira, ederki ezagutzen dute auzoko kultura-esparrua.

Argitalpen honek 4 atal ditu:

1. Hezkuntzaren lan-esparruak: Lehen zatian aditzera ematen da zein den Tabakalera eta bere ingurunerik hurbilena den Egia auzoaren arteko bitartekotzako proiektu-mota hau egiteko arrazoia.
2. Ekosistema: Bigarren zatiak poster bat du erdialdean, “Ekosistema Egia” izenekoa. Egia auzoa eratzen duten erakundeen eta harremanen sistema irudikatzen du. Egiako jendarte-, kultura- eta hezkuntza-ehuna eratzen duten harremanak, sareak, jakintzak eta ekimenak aztertu ditugu, Hezkuntza taldeak 2013ko azken hiru hilabeteetan izan dituen elkarrizketak eta eman duen begirada erabiliz. Azterketa horren emaitza da mapa.
3. Auzo paisaiak: Hirugarren zatian, 2013ko abenduaren amaieran izandako tailerrak deskribatu ditugu. Egiako familiekin, eta Dandai eta Antxeta Ttan-Ttakun elkarteekin elkarlanean eratu ziren lan-gune horiek, eta Audiolab, LaFundició eta Hezkuntzako taldea osatzen duten hiru lagunak arduratu ziren koordinazioa egiteaz.
4. Balorazioa, galderak eta irekitako lan-ildoak: Azkenik, laugarren zatian, tailerren ebaluazioa egiteaz gain, 2014. urtean, Egia auzoarekin eta lankide berriekin elkarlanean eta harremanetan, ikertu nahi ditugun arazo eta erronka batzuk jaso ditugu.

Esta publicación que tienes en tus manos se titula “Auzo paisaiak”. Es una muestra del trabajo desarrollado por el proyecto de Mediación de Tabakalera y otros colaboradores durante los meses de septiembre a diciembre del 2013 bajo el proyecto de “Ekosistema”. Este proceso ha sido un espacio de contacto y trabajo colaborativo con parte del barrio de Egia en el que hemos querido experimentar y generar formas diferentes de trabajar entre un centro cultural y su territorio más próximo, asumiendo la complejidad y negociaciones resultantes.

Hemos escogido un formato ligero, amable y cercano.

Para el diseño y la maquetación hemos contado con IPAR Arte Grafikoa y Josean Abecia, profesionales del barrio que conocen y se mueven en el ámbito cultural local.

Esta publicación se divide en 4 secciones:

1. Marcos de trabajo de Mediación: Una primera parte que da cuenta del por qué de este tipo de proyectos de mediación entre Tabakalera, y el barrio de Egia, su entorno y contexto más inmediato.
2. Ekosistema: Una segunda parte incluye un póster central llamado “Ekosistema Egia” que representa el sistema de relaciones y entidades que componen Egia. El mapa surge como resultado de un análisis de las relaciones, redes, saberes e iniciativas que componen el tejido sociocultural y educativo de Egia a partir de la mirada y las conversaciones mantenidas entre ellos y el equipo de mediación en los últimos tres meses del 2013.
3. Auzo paisaiak: Una tercera parte, describe los talleres, desarrollados a finales de diciembre del 2013. Estos espacios de trabajo se llevaron a cabo en colaboración con familias de Egia, Dandai y Antxeta Ttan-Ttakun, y fueron coordinados por Audiolab y LaFundició junto con las tres personas que componen el equipo de Mediación.
4. Valoración, preguntas y líneas abiertas: Finalmente la cuarta parte incluye una evaluación de los talleres, y un conjunto de problemas y retos que pretendemos seguir investigando durante el año 2014 en colaboración y diálogo con el barrio de Egia, y nuevos grupos de colaboradores.

**Hezkuntza Tabakalera Mediación**



# Zer da Tabakalera?

Tabakalera kultura garaikidearen sorkuntza-zentro bat da, eraikitzeko lanetan dago, eta gogoeta kritikoa, hausnarketa eta eztabaida piztea du xede.

Eraikinaren motorra kultura-proiektua izango da, barruan kultura-arloko hainbat proiektu eta ekimen izango dira, eta komunitate sortzailea indartzea, eta eragileen eta herritarren arteko elkarlanerako eta harremanetarako espazioak sortzea izango du helburu.

Proiektu kulturalaren xede nagusia hauxe da: kulturako sorkuntza garaikidea hainbat arlotan eta aldi guztietan (ikerketan, ekoizpenean eta erakusketan) sustatzea, eta ezaguera sortzea eta partekatzea.

Fabrikaren barruan, mediateka, hiritar lantegiak, sortzaileentzako egoitzak, erakusketak eta beste baliabide batzuk bilduko dira.

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak bultzatzen dute proiektua.

# ¿Qué es Tabakalera?

Tabakalera es un centro de creación de cultura contemporánea en proceso de construcción, con el propósito de generar pensamiento crítico, reflexión y debate.

El proyecto cultural será el motor del edificio que albergará diferentes proyectos e iniciativas culturales, fortaleciendo una comunidad creativa y propiciando espacios de colaboración y relación entre los diferentes agentes y la ciudadanía.

El objetivo principal del proyecto cultural es promover la creación cultural contemporánea en diferentes ámbitos y en todas sus fases (investigación, producción, exhibición) y generar y compartir conocimiento.

La fábrica tendrá un espacio de mediateca, un espacio de talleres ciudadanos, residencias para creadores, así como espacios expositivos y otros recursos.

Es un proyecto impulsado por el Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián.

# Zein da HEZKUNTZA proiektua Tabakaleran?

Tabakalerak hiriko zenbait erakunde, talde eta hiritarrekin duen bitartekotza- eta hezkuntza-proiektua da **Hezkuntza Tabakalera**. Artaziak eta Transductoresek koordinatu eta garatzen dute Tabakaleraren bitartekotza-programa[1]. Programa horrek harremanak, elkarrizketak eta ekimenak sustatu nahi ditu, Tabakaleraren proiektuaren eta hainbat eragile eta errealitateen artean.

Mediazioa iturri egokia da sorkuntzako zentroaren eta hainbat talde edo sareren artean jakintzak ekoizteko eta ikertzeko. Proiektuak dituen politikek programa kokatuak garatu nahi dituzte, herritarren hainbat harreman-molderekin eta sorkuntzako formekin elkarlanean arituta. Ildo horretan, lankide gisa aritzen den testuinguru eta ekimen guztietan dauden sinergietan, erritmoetan eta jakintzetan txertatuko da bitartekotza, sarean lan egiteko eta taldeko jakintzak ekoizteko moldeak gogoan izanik.

Hemendik aurrera hemen izango gaituzue: tabakalera.eu/blog-hezkuntza

# ¿Cuál es el proyecto de MEDIACIÓN de Tabakalera ?

**Hezkuntza Tabakalera** es el proyecto de mediación y educación de Tabakalera en relación a diversas entidades, grupos y públicos de la ciudad. El programa de mediación de Tabakalera está coordinado y desarrollado por Artaziak y Transductores[1]. Éste se centra en generar relaciones, diálogos e iniciativas a largo plazo entre el proyecto de Tabakalera y diversos agentes y contextos.

Entendemos la mediación como una fuente de investigación y producción de saberes entre el centro de creación y diversos grupos o redes. El proyecto centra sus políticas en el desarrollo de programas situados en colaboración con las diversas formas de creación y modos de relación ciudadanos. Para ello la mediación se insertará en las sinergias, ritmos y saberes de cada contexto e iniciativa con la que colabore pensando en modos de trabajo en red y de producción de saberes colectivos.

A partir de ahora nos podeis seguir en tabakalera.eu/blog-hezkuntza

# Ekosistema

Hezkuntza taldeak **Ekosistema** izeneko proiektua garatu du 2013ko urritik abendura arte, Egia auzoarekin elkarlanean estuki arituta. Bertako aditu baten laguntzaz, elkarrizketa eta harreman hurbila lortu dugu auzoko hogeita hamar bat erakunde eta pertsonarekin. Hizketan hasi gara haiekin, Tabakalera proiektuaren prozesuaren inguruan hitz egiten eta binkulatzen hasteko, (bilera asko izan dira erakundeen lokaletan, ikastetxeetan, tabernetan edo auzoko beste gune batzuetan). Lan-ildo horretan, hainbat molde ikertu ditugu auzoarekin biltzeko eta elkarrizketan aritzeko, Paisaje Transversal plataformaren elkarlanarekin duen #EgiaMapa proiektuak hirigintzan abiarazi duen hasierako diagnostikoaren eta lehen harremanaren ondotik[2].

Lan horren bidez, alde batetik, auzoko erakundeak, haien beharrizanak eta arazoak zein diren jakin nahi izan dugu, betiere, begirune osoa erakutsiz haien denbora, espazio eta erritmoekiko. Bestetik, gogoeta egin nahi izan dugu Egiako erakundeengana hurbiltzeko eta haiekin hizketan aritzeko eta eskuz esku lan egiteko dauden hautabideez, baterako lan-ildoak eta proposamenak sortu nahian. Eragile berria gara auzoan, eta, ezer baino lehen, gure auzokoak zein diren jakin nahi izan dugu. Ildo horretan, argi genekien zaila izango zela lanean aritzea Tabakalera eraikinak hainbeste markatu duen auzo batean, historia nabarmena eta oso lan-sare egituratuak dituen auzoan.

# Ekosistema

El equipo de mediación ha desarrollado desde octubre hasta diciembre del 2013 el proyecto de **Ekosistema** en estrecha relación con el barrio de Egia. En colaboración con una experta local, se ha establecido un diálogo y contacto cercano a una treintena de entidades y personas del barrio con los que empezar a hablar y vincular el proceso de Tabakalera a partir de sus necesidades y ritmos (muchas reuniones se han dado en los locales de la entidades, en centros escolares, en bares u otros espacios del barrio). Esta línea de trabajo ha explorado diversos modos de reunirnos y dialogar con el barrio, a partir del primer contacto y diagnóstico inicial a nivel urbanístico iniciado por el proyecto de #EgiaMapa desarrollado en colaboración con Paisaje Transversal[2].

El objetivo de este trabajo ha sido por un lado conocer las diversas entidades del barrio, sus necesidades y problemáticas, siempre con un máximo respeto a sus tiempos, espacios y ritmos propios. Por otro lado nos ha interesado pensar en formas alternativas de dialogar, acercarnos y trabajar con entidades de Egia, mano a mano, para generar líneas de trabajo conjuntas y propuestas. Entendemos que somos un nuevo agente que llega al barrio y antes que nada queremos conocer a nuestras/os vecinas/os. En este sentido, éramos conscientes de la dificultad que entraña trabajar con un barrio que ha estado tan marcado, en su identidad, por la presencia del edificio de Tabakalera, y que además tiene una historia y redes de trabajo muy articuladas.

---

1. artaziak.com/ y transductores.net/
2. paisajetransversal.org/

# AUZO PAISAIAK

**Ekosistema** proiektua abiaburutzat hartuta, **Auzo paisaiak** proposamena sortu zen, Egiako espazio publikoa eta ondare komunaren lurralde ugariak lantzeko. Lanerako gai horiek etengabe azaldu dira auzoko taldeekin izan ditugun bilera gehienetan. Horrez gain, elkarlanerako proiektu eta ekimen zehatzak lantzeko beharra sortu zen, auzoan eta hirigintzan eragin zuzena izateko, eta talde-laneko espazioak abiarazteko.

Bi beharrizan horiek abiaburutzat hartuta, **Auzo paisaiak** prozesua proposatu genuen. Prozesuaren barruan, hainbat tailer eta jarduera egin genituen abenduaren 27an, 28an eta 29an.

Era horretan, beste urrats bat egin nahi izan genuen, 2014. urtean auzoarekin egin nahi genuen epe luzeko lanaren barruan. Hezkuntza taldeak auzoko hainbat talde eta erakunderekin elkarlanean egin zuen lehen lan-ekintza izan zen **Auzo paisaiak**. Alde batetik, bi talderi egin genien dei, talde horiek egiten duten jarduerak talde-proiektuak, bitartekaritza eta hezkuntza, eta ondare komunari eta espazio publikoari buruzko lanak dituelako aztergai: Audiolab[3] eta LaFundició[4]. Bestetik, auzoko bi talderi –Dandai eta Antxeta Ttan-Ttakun taldeei– tailerretan parte hartzeko gonbidapena egin genien, eta deialdi orokorragoa ere egin genien auzoko familiei, Egiako ikastetxeekin harremanetan jarriz.

A partir del proyecto de **Ekosistema** nace la propuesta de **Auzo paisaiak**, que trabajó sobre en el espacio público y los diversos territorios de lo común de Egia. Estos temas de trabajo han surgido permanentemente en la mayoría de encuentros mantenidos con los grupos locales. También surgió la necesidad de generar proyectos e iniciativas de colaboración concretas, que incidieran directamente en el barrio, en el urbanismo y que supusieran espacios de trabajo colectivo.

Partiendo de estas dos necesidades propusimos el proceso de **Auzo paisaiak.** Este estaba compuesto por una serie de talleres y actividades durante los días 27, 28 y 29 de diciembre.

Esta actividad pretendió ser un paso más dentro del trabajo a largo plazo durante el año 2014 con el barrio. **Auzo paisaiak** supuso la primera acción de trabajo desarrollada desde la Mediación en colaboración con diversos grupos o entidades del barrio. Por un lado convocamos a dos colectivos que desarrollan trabajo en términos de proyectos colectivos, mediación/educación, y trabajo sobre lo común y espacio público: Audiolab[3] y LaFundició[4]. Por otro lado invitamos a dos grupos locales Dandai y Antxeta Ttan-Ttakun a participar en los talleres, y de forma más general abrimos una convocatoria a familias del barrio, a través de la comunicación con los centros escolares de Egia.

3. http://audio-lab.org/
4. http://www.lafundicio.net/

**EJE CRONOLÓGICO EKOSISTEMA**





**Antxeta Ttan-Ttakun, Hezkuntza eta LaFundició auzotik paseatzen**
Antxeta Ttan-Ttakun, Hezkuntza y LaFundició recorriendo el barrio



**Dandaiko kideak auzotik ibiltzen**
integrantes de Dandai recorriendo el barrio



**Familiak soinuak grabatzen tailerrean**
Grupo de familias registrando sonidos

# Paisaia feministak

**LaFundició** kooperatibarekin elkarlanean egina.

Parte-hartzaileak: Dandai

Emakumeek nola ikusten, bizi izaten, hausnartzen eta ekoizten dugu Egia? Nola jaso ditzakegu emakumeek auzoari, onura komunari egindako ekarpenak, geure baitatik?

Tailerraren bidez, ikuspegi feministatik hausnarketa egin, eta istorioak bildu eta ekoitzi nahi genituen, eta orain arte ikusezinago egon diren kultura eta komunikazioko praktikak landu nahi genituen.

**LaFundició** kooperatiba bidegurutzean aritzen da, arte- eta kultura-praktiken eta hezkuntzaren artean, jarduera horiek guztiak *eztabaidagarritzat* hartuta. Gaur egun, kooperatibak duen jarduteko ildo nagusia elkarlaneko prozesu jarraituak dira.

En colaboración con **LaFundició**

Participantes: Dandai

¿Cómo vemos, vivimos, pensamos, producimos Egia las mujeres? ¿Cómo podemos recoger las aportaciones de las mujeres al barrio, a lo común, desde nosotras?

El objetivo del taller era realizar una reflexión, recogida y producción de historias desde una mirada feminista y desarrollar prácticas culturales y comunicativas más invisibilizadas hasta ahora.

**LaFundició** es una cooperativa que se sitúa en el cruce de las prácticas artísticas y culturales y la educación, entendidas como actividades *controversiales*. Actualmente su principal línea de actuación se fundamenta en procesos colaborativos de continuidad.

# Soinu paisaiak

6 eta 12 urte arteko umeak dituzten familiei zuzendua

Zein da gure auzoak duen soinua? Hiriko gainerako guneek soinu desberdina al dute? Gustatzen al zaigu bere soinua? Soinu bera al du guztiontzat?

Auzoaren entzuketa aktiboari buruzko tailerra, grabazioak, elkarrizketak, soinu-mapak eta Egiako hainbat gunetan egindako esku-hartzeak abiaburutzat hartuta. Auzoko soinu-mapa sortzea zen helburua.

**Audiolab irabazteko asmorik gabeko kultura-elkarte** bat da, **soinuaren ikerkuntzan** dihardue na.

Dirigido a familias con niñ@s entre 6 y 12 años

¿Cómo suena nuestro barrio? ¿Suena distinto al resto de la ciudad? ¿Nos gusta cómo suena? ¿Suena igual para tod@s?

Taller sobre escucha activa del barrio, a partir de grabaciones, entrevistas, mapas sonoros e intervenciones sobre los espacios de Egia. El objetivo era generar un mapa sonoro del barrio.

**Audiolab** es una **asociación** cultural **sin ánimo de lucro** dedicada a la **investigación sonora.**





**Familiak soinuak grabatzen tailerrean**
**Grupo de familias registrando sonidos**

# Paisaia hezitzaileak

**LaFundició** kooperatibarekin elkarlanean egina.

Parte-hartzaileak: Antxeta Ttan-Ttakun

Nola azal ditzakegu taldeko prozesu hezitzaileak espazio publikoan? Zein espazio dugu Egian?

Tailer honetan, hausnarketa egin nahi genuen taldeko pedagogiei eta espazio-politikei buruz, hiriak eta espazio publikoak, hezkuntzako baliabide gisa, hezkuntza- eta jendarte-lanetan eskaintzen dizkiguten aukera berriak irudikatuz.

En colaboración con **LaFundició**

Participantes: Antxeta Ttan-Ttakun

¿Cómo podemos plantear procesos educativos colectivos en el espacio público? ¿Con qué espacios contamos en Egia?

En este taller se pretendió crear un espacio de reflexión sobre las pedagogías colectivas y las políticas espaciales intentando pensar las nuevas posibilidades de trabajo educativo y social que nos ofrece la ciudad y el espacio público como recurso educativo.



**Paisaia hezitzaileak tailerraren lan saioa**
**Sesión de trabajo del taller Paisaia hezitzaileak**



**Auzoko espazio subjektiboen inguruan lanean**
**Trabajando sobre los espacios subjetivos del barrio**

# PAISAIA FEMINISTAK

## Egia Dandaitik - paisaia feministak?

DANDAI (Ibiltzen hasi, balantza egin baina erori gabe....)

1966. urtetik aurrera, Egiak zentro komunitario eraginkor bat zuen: Kutxa Fundazioaren Familia eta Jendarte Prestakuntzarako Zentroa. Hori desegin ondoren, **Dandai emakume-elkartea** sortu zen 2003. urtean, zentroan parte hartzen zuen emakume-taldeak bultzatuta.

Bere hamar urteko ibilbidean, proiektu autonomoa izan da Dandai, auzoko emakume guztiei egon da zabalik, hazkuntza eta aurkikuntzen bidea urratu nahian. Emakume askoren jakintza eta ordu luzetako elkarbizitza metatzen da elkartean, aisialdiaren bidez (pintura, argazkilaritza, kultura-txangoak, sagardotegiak…), edo beste ikaskuntza batzuen bidez (garapen eta hazkuntza pertsonala) lortua.

Ohartu gara beti ikasten dugula gehiago besteengandik, desberdintasuna onartuz, besteen larruan jarriz… Horrek adorea eman digu harreman-sare berriak ezartzeko, eta bizitzari beste ikuspegi batetik eta irribarre batez begiratzeko. Horrez gain, independentzia eman digu bizitzatik ibiltzeko, autonomo izateko, aske sentitzeko, geure ideiak adierazten ausartzeko…

Gaur egun, 125 emakume inguru gaude elkartean.

### Ideiak

Dandai elkarteak espazio bat eratu nahi du auzoan, emakumeen aberastasun pertsonala lortzeko, eta, horretarako, prestakuntza bultzatu, jakintza eta ilusioa partekatu, eta aukera berriak bilatu behar dira. Gai izan nahi dugu bidezidor berriak sortzeko eta aurkitzeko, eta, era berean, etorkizuneko plan horien erantzule izan nahi dugu. Batzen gaituen horretatik abiatuta, iritzi desberdinak egotea interesgarriagoa izango da. Izan ere, eztabaida eta elkarrizketaren bidez, argiago izango ditugu ideiak.

Ohartzen gara emakumeek bereizkeria larria jasaten dutela oraindik jendartean, eta, beraz, borroka egin nahi dugu –eta hala egin behar dugu– etorkizunean eskubideen aldeko berdintasuna lortzeko. Guk ere ekarpena egin dezakegu, guztion hobekuntza lortzeko, orain egiten ari garen lana etorkizunerako apustu bat baita.

### Esperientzia – Ezkutuko Curriculumaren Proiektua

Garapen pertsonalerako taldean, curriculum ezkutuak prestatu ditugu; eta emakume eta pertsona gisa dugun prestakuntzan izan ditugun esperientzia guztiak bildu ditugu hor. Esperientzia horien balioa nabarmendu dugu, laneko curriculumen hizkera teknikora egokituta. Curriculumak idaztean ere, gure historia berreskuratzeko zortea izan genuen. Berehala ohartu ginen aski zela gure bizitzan orain arte egindakoa beste era batean izendatzea, zentzu berria emateko, eta gure lurraldearen garapen sozio-ekonomikoari begira guk geuk egindako ekarpena ulertzeko. Aurkikuntza handia izan zen horretaz ohartzea. Zenbat diru aurreztu du estatuak guri esker, haurtzaindegietan eta geriatrikoetan? Hori adibide bat besterik ez da. Ekonomiaren oinarria “produkzio-lana” dela esaten denean, ahaztu egiten da emakumeek lan-merkatutik kanpo egindako lana ere emankorra dela, balioa ematen diola jendarteari. Horixe da emakumeak ikusgai jartzeko prozesuari egin diogun ekarpena.

## Egia desde Dandai - ¿paisajes feministas?

DANDAI (Empezar a andar, tambalearse pero sin caerse...)

Egia, desde 1966 contaba, como centro comunitario activo, con el Centro de Formación Familiar y Social de la Fundación Kutxa. Tras la disolución del mismo, surge, impulsado por el colectivo de mujeres que participaba, la **asociación de mujeres Dandai** en 2003.

En diez años de andadura, es un proyecto autónomo abierto a todas las mujeres del barrio, para el camino del crecimiento y los descubrimientos. Supone conocimiento y convivencia de muchas mujeres durante muchas horas, a través del ocio (pintura, fotografía, excursiones culturales, sidrerías...) y de otros aprendizajes como el desarrollo y crecimiento personal.

Nos hemos dado cuenta de que siempre se aprende de las demás, permitir la diferencia, ponernos en otro lugar,... Nos anima a establecer nuevas redes de relación y mirar la vida con otros ojos y una sonrisa. También nos ha dado independencia para movernos en la vida, ser autónomas, sentirnos libres, atrevernos a expresar nuestras ideas...

En la actualidad, la asociación la componemos alrededor de 125 mujeres.

### Ideario

Dandai quiere conseguir un espacio enclavado en el barrio que permita el enriquecimiento personal de las mujeres fomentando la formación, compartiendo el saber, la ilusión y la apertura a nuevos horizontes. Queremos ser capaces de crear y descubrir nuevas sendas y también responsabilizarnos de estos planes de futuro. Desde lo que nos une, la diferencia de opiniones será un aliciente más, pues del debate y del diálogo saldrá una mayor claridad de ideas.

Somos conscientes de que, socialmente, sobre las mujeres existen todavía mucha discriminación y queremos, y debemos, luchar por un porvenir igualitario en derechos. Creemos poder contribuir a una mejora común, nuestro trabajo de ahora es una apuesta de futuro.

### Experiencia – Proyecto Currículum Oculto

En el grupo de desarrollo personal, hemos confeccionado unos currículums ocultos, en los que se recogen todas las experiencias con las que nos hemos formado como mujeres y como personas. Experiencias que pusimos en valor, ajustándolas al lenguaje técnico de los currículums de empleo. El hecho mismo de redactarlos, nos trajo el regalo de recuperar nuestra historia. Fue un descubrimiento ver que solo nombrando de otra manera lo que hemos hecho hasta ahora en nuestra vida, podemos dotarla de un nuevo sentido, podemos entender cómo hemos contribuido al desarrollo socio-económico de nuestro territorio. ¿cuánto dinero hemos ahorrado al estado en guarderías y geriátricos? Este es solo un ejemplo. Dicen que la economía se sustenta en el trabajo llamado “productivo”, olvidando que el trabajo realizado por las mujeres fuera del mercado laboral, también produce y aporta valor en la sociedad. Es nuestra contribución al proceso de visibilización de las mujeres.

**Dandai**




**Dandaiko Ekosistema**
**Ekosistema de Dandai**

# Egia Dandaitik
# Egia desde Dandai

Marrazkiek eta testuek mikro paisaia bat egituratzen dute, bakoitzarentzat esanguratsua den toki bat hautatzeko eta besteekin partekatzeko gonbidapenari erantzunez. Itxuraz ikusezinak eta ezdeusak diren tokiak, baina, beren kontakizunen bidez, esanahi berriak har ditzaketenak, belaunaldi bateko emakumeek lurraldea ulertzeko dituzten forma berriei jarraiki; emakume horiek beren gain hartu dituzten roletan eta lanetan ageri-agerian baitaude emakumeak erreprodukzio-lanetara azpiratzeko eta bazter uzteko prozesuak. Era horretan, Dandai elkartearen aurreko proiektu batekin egin nahi genuen lotura: *Ezkutuko curriculuma* izeneko lanarekin.

Espazio publikoa beldurrez ikusten duen begirada da emakumea toki ahulean eta biktima erraz bilakatzeko moduan kokatzen jarraitzen duen eraikuntza sozialaren bereizgarrietako bat. Alabaina, bertan, gure gorputzak lurralde baliotsu gisa agertzen dira, estatuaren kontrolari aurre egiteko eta borrokatzeko.

Los dibujos y textos configuran un micro paisaje que responde a la invitación a elegir y compartir un lugar significativo para cada una. Lugares aparentemente invisibles e insignificantes pero que a través de sus relatos pudieran adquirir nuevas capas de significado respondiendo a nuevas formas de entender el territorio por parte de las mujeres de una generación que han asumido roles y trabajos marcados por procesos de exclusión y sumisión de las labores reproductivas. La idea era conectar así con un proyecto anterior de Dandai: *El curriculum oculto*.

La mirada del espacio público desde el miedo es uno de los rastros de esa construcción social que sigue situando a la mujer en un lugar vulnerable y fácilmente victimizable. Pero en el que nuestros cuerpos se revelan como valiosos territorios de confrontación y lucha ante el control desde el Estado.




**Mª Jesus Villaverde Cardama**




**Conchi González Arrieta**

### *Cristina Enea*

*Cuando vi un pavo real extender su cola, fué algo que me dejó impresionada y extasiada, tanto que no lo puedo explicar, y me acuerdo en muchísimas ocasiones, esos colores se me han quedado en mi retina.*

**Anttoni Muñoz González**




**Isabel Saez Barban**




Pilar Romea Miguel

YO NO SOY DE EGUIA. ME TRAJERON A ESTE BARRIO HACE MUCHOS AÑOS. DE PRINCIPIO NO ME GUSTÓ PERO CUANDO ENTRÉ EN DANDAI ME IMPACTÓ EL AMBIENTE CORDIAL Y EN SEGUIDA ESTUVE MUY AGUSTO. POCO A POCO HE IDO CONOCIENDO EL BARRIO Y YA ES COMO SI PERTENECIERA YA A EGUIA.

Esta cuesta la he pateado yo subiendo y bajando llevando mis hijos al colegio y cuando vas subiendo parece que se empina mas. Por eso dicen que las mujeres de Egua tenemos el trasero duro y las piernas atleticas




Pilar Samperio Gil



Mª Antonia Martin Rodriguez

Fabrica de marmoles, cuando estaba cerrada, me resultaba algo feo y tetrico.
Estaba situada en lo que es ahora en Plaza Martin Santos.

**El año 1970, cuando llegué a vivir a Egia, al final de la calle Ametzagaina. ¡Cómo ha cambiado todo! el portal lo teníamos hacia la parte de atrás y por la noche daba mucho miedo.**

Itziar Madariaga Isas-Isasmendi




De esto ya hace unos cuantos años: fue desde mi casa cuando sentía emociones especiales al asomarme a mi balcon despues de hacer las labores de casa e ir a otear un poquito lo que ocurria en la calle. ¡pues sí, me emociono porque me recordaba a mi pueblo Hernani "Los txikiteros": Esto significa, las costumbres que tenían los hombres de este barrio salir por medio de la calle y en cuadrilla al chikiteo: visitar los bares y nutrirse el estomago con los vinos y ninchos que les ofrecian en estos bares.

Enkarni González Arrieta

## Arenas movedizas - Maru Rizo Castejón



En el parque Cristina-enea/Gladys-enea, por su espesura y estética espontánea más un bosque que un parque, casi al comienzo del camino paralelo a Mundaiz había una especie de estela mortuoria en piedra rugosa en la que parecían adivinarse letras ya corroídas por el tiempo. Delante, una pequeña hondonada que, rodeada de guijarros amontonados formaban un círculo, nos obligaba a no acercarnos demasiado.

Era conocido este lugar por su peligrosidad y los niños teníamos cuidado de no acercarnos, pues contaban que esa especie de pozo guardaba un secreto. Su superficie de tierra muy arenosa de un color algo suave y semitapada por la hojarasca parecía sólida, pero al ser pisada se hundía, y escondía el cuerpo de alguien que desapareció un atardecer en sus arenas movedizas.

Aquel lugar de Egia -como otros muchos-, ya visto desde hoy, quizá explique el origen de sensaciones y de sentimientos que más tarde nos acompañan en nuestra existencia. Esas pequeñeces inmersas en la infancia nos configuran ignoramos hasta dónde, pero me pregunto si aquellas arenas movedizas no nos iniciaban en los primeros sabores del miedo, del peligro, pero también del encanto de lo misterioso, de la belleza de un paisaje siempre cambiante, del afán de saber más de aquella historia y de otras muchas historias. También de preguntarnos por la realidad y la irrealidad, más allá de este pensamiento ahora consciente, entonces intuido solamente. Quizá.

# Paisaia feministak?

Hiru egun oso epe laburra da talde batekin eta guretzat berria den testuinguru batean lan egiteko. Hezkuntza taldeak gonbit egin zion Dandai emakume-elkarteari paisaiaren ideia ikuspegi feministatik berrikusteko. Horixe izan zen Tabakalerako tailerraren abiaburua. Guk hiru egun horiek dinamizatu behar genituen, eta ahalegina egin behar genuen interes komunak sumatzeko, eta Tabakalera taldearen eta Egia auzoaren artean epe luzeko lankidetzarako bideak aurkitzeko.

Zenbait alderdi genero-ikuspegitik aztertu, eta guk beste emakume-talde batzuekin izandako lan-esperientzia partekatu nahi genuen Dandai elkartearekin, guztion esparrua eta hizkera finkatzeko asmoz, hori lagungarri izango baitzitzaigun zenbait hitz erabiltzerakoan, adibidez, espazio publikoa, espazio pribatua, produkzio-lana, erreprodukzio-lana eta beste termino batzuk.

Nik uste dut hitzez hitz ulertu genuela tailerrari izena ematen dion premisa, eta Dandai elkarteak laguntza eman zigun MacGuffin izaera ematen. MacGuffin baliabide zinematografikoa osagai hutsal bat da, hari esker pertsonaiek aurrera egiten dute bilbean, baina osagaiak berez ez du inolako garrantzirik istorioari begira. Ideia hori lagungarria zen lan-espazioa egituratzeko, "paisaia feministak" zuen zamarik gabe.

Atsedenaldiaren ondoren, taldeak adierazi zuen deserosoa zela bere itxaropenak betetzen ez zituen nonbaiten egotea. Emakume batzuek azaldu zuten Tabakaleraren etorkizunari buruz hitz egin ahal izatea zela tailerrera joateko zuten motibazio nagusia. Dandaik argi esan zuen eginkizun eraginkorra bete nahi zuela Tabakalerako proiektuan zer eta nola egin behar zen erabakitzerakoan. Gaiari heltzean, hainbat eskaera egin genizkion administrazioari. Hala ere, eskaera horiek areago indartzen zuten botere publikoen eta herritarren artean ezarrita zegoen logika, gurasokeriazko eta laguntzazko harremanak errotzen dituena. Izan ere, logika horri jarraiki, herritarrek eskaerak egiten dituzte, eta administrazioak aukeran du ematea edo ez ematea. Era horretan, maiz, ezabatu egiten da bere burua antolatzeko eta administrazioen onarpenik behar ez duten errealitateak eta egoerak eraikitzeko taldeak dituen imaginarioa eta indarra.

Lehen gainezkatze horren ondorioz, berriz kokatu behar izan genuen geure burua, eta gure tailerrerako deialdiaren adierazpena.

Desbideratze horren ondorioz, erronka azaldu zitzaigun, geure bizitzak eta joan-etorriak antolatzen jakiteko, denok ezagutzeko moduko esparru bat eraikitzeko, partekatutako lan-gune horrena, eta gainerako taldeekin harremanetan jartzeko.

Fanzinea oso laguntza egokia izan zen, ideiak antolatzeko ontzi gisa, *Paisaia feminista Egia Dandaitik* bilakatu zen, eta ikusgai jarri zuen erakundeak auzoan zituen harremanen ekosistema.

Bestetik, auzoko gune batzuk ikusgai jartzen saiatu ginen, esanahi berria eman nahian: Enkarnik gaztetan kalera begiratzeko erabiltzen zuen balkoia, Kristina-Enea parkeko paumen buztanen koloreak, Anttoniren imaginario estetikoa baldintzatu baitzuten, Toñiri beldurra ematen zion marmol-fabrika zahar bat… Taldearen ikuspegiari, indibidualagoak eta subjektiboagoak ziren paisai horiek gaineratzea erabaki genuen.

Eta amaierako une horretan aukera berriak azaltzen hasi ziren: nola partekatu eta eman jakitera auzoari prozesu horiek; nola bete espazio publiko horiek modu sortzailean, komunitatea eraikitzeko; nola asmatu berriz gure lurraldean egoteko moduak, gure aukerak erabiliz, bizi izateko forma berrien katalizatzaile eta sortzaile gisa.

Horrela agertu zen sorginaren irudia berreskuratzeko kezka, ospatzen den jai bat berriz asmatzeko ardura, komunitatea eta lurraldea sorgin-begiz irudikatzera gonbit egitekoa.

# ¿Paisajes feministas?

Tres días es un plazo de tiempo relámpago para trabajar con un grupo y un contexto nuevo para nosotras. El taller en Tabakalera partía de una invitación desde Hezkuntza a la asociación de mujeres Dandai para revisitar la idea de paisaje desde una perspectiva feminista; nuestra labor era dinamizar esos tres días intentando vislumbrar posibles intereses comunes y vías de colaboración a más largo plazo entre Tabakalera y el barrio de Egia.

Pensamos compartir con Dandai nuestra experiencia de trabajo con otros grupos de mujeres problematizando algunos aspectos desde una visión de género, con la idea de poder establecer un marco y un lenguaje común que nos ayudará a la hora de utilizar términos como espacio público, espacio privado, trabajo productivo, trabajo reproductivo, etc.

Creo que entendimos la premisa que daba título al taller de una forma muy literal y Dandai nos ayudó a darle el carácter preciso de MacGuffin. La idea cinematográfica del MacGuffin, como un elemento banal que hace que los personajes avancen en la trama pero que no tiene ninguna importancia en la historia en sí, facilitaba estructurar el espacio de trabajo sin la carga del 'Paisaje feminista'.

Después del descanso el grupo manifestó la incomodidad de asistir a algo que no respondía a sus expectativas; algunas de las mujeres expusieron que su principal motivación para asistir al taller era poder dialogar sobre el futuro de Tabakalera. Dandai hizo explícito su deseo de tener un papel activo en la toma de decisiones sobre qué y cómo debía llevarse a cabo el proyecto de Tabakalera. Al abordar el tema esto se tradujo en una serie de demandas a la administración que reforzaban la lógica establecida entre los poderes públicos y la ciudadanía y que tiende a arraigar relaciones paternalistas y asistencialistas, donde la ciudadanía pide y la administración concede o no, anulando en muchos casos el imaginario y la potencia colectiva para autoorganizarse y construir realidades y situaciones que no pasen por la aprobación de las administraciones.

El primer desbordamiento nos obligó a resituarnos y a resituar el enunciado de la convocatoria de nuestro taller.

Nuestra deriva nos planteó el reto de saber ordenar nuestras idas y venidas, poder construir un marco reconocible para todas de lo que había sido ese espacio de trabajo compartido y poder ponerlo en relación con el resto de grupos.

El fanzine nos ayudó como recipiente en el que organizar ideas, el *Paisaje feminista* se transformó en *Egia desde Dandai*, visibilizando el ecosistema de relaciones de la entidad a nivel local.

También intentamos visibilizar algunos espacios del barrio con la intención de resignificarlos: el balcón desde el que Enkarni miraba la calle de joven, los colores de las colas de los pavos reales del Parque de Cristina Enea, que habían condicionado el imaginario estético de Anttoni, una antigua fábrica de mármoles que le producía miedo a Toñi... A la visión del colectivo decidimos añadir esos paisajes más individuales y subjetivos.

Y en ese momento de cierre empezaron a emerger nuevas posibilidades: cómo compartir y hacer públicos estos procesos con el barrio, cómo ocupar esos espacios públicos de forma creativa para construir comunidad, cómo reinventar las maneras de estar en nuestro territorio desde nuestras posibilidades como catalizadoras y creadoras de nuevas formas de habitar...

Así apareció la inquietud de rescatar la figura de la bruja, de reinventar una festividad que las celebrara, de invitar a imaginar la comunidad y el territorio con ojos de bruja.

**LaFundició - Mariló Fernández**





# Zer da grafiko hau?

Egiako hainbat erakunde, talde eta ekimenekin komunitateko lanaz, hezkuntza arautuaz, hezkuntza informalaz eta kultura-lanaz hitz egiteko izan ditugun bileren eta batzarren emaitza da Ekosistema Egia. Hezkuntza taldearen begirada eta izan ditugun elkarrizketak abiaburutzat hartuta, irudi honen bidez erakutsi nahi dugu zer-nolako lan-ekosistema izan dezakegun, eta nola jartzen diren harremanetan sareak eta taldeak auzoaren esparruan. Egian egiten den lana, sare ikusezinak eta antolakuntzako moldeak ikusgai jarri nahi ditugu, ekosistema konplexu eta organiko baten modura eta etengabeko eraldaketan. (Kontutan izan behar da prozesua irekia dagoela, eragile batzuekin bildu garela oraingoz. Badakigu beste asko faltan ditugula hala nola: aitzarte, trebeska, reflex,...)

Posterrean, hiru lan-gune edo -espazio jaso dira: pedagogia eta espazio publikoko praktikei lotuta. Gune horietan hainbat erakunde agertzen dira, zirkulu baten bidez irudikatuta. Erakunde horien lanak edo arazoak esparru hori aztertzen du gehienbat. Distantziak erakundeen arteko harreman- edo hurbiltasun-maila zehazten du. Gainera, hainbat osagai grafiko sartu ditugu, erakunde bakoitzak egiten duen lanaren ezaugarri gisa, haien indarguneak eta erronkak azaltzen baitituzte.

# ¿Qué es este gráfico?

Ekosistema Egia es el resultado de los diversos encuentros y reuniones que hemos tenido con las diferentes entidades, grupos e iniciativas locales de Egia, en los ámbitos del trabajo comunitario, la educación reglada, la educación informal y el trabajo cultural. Esta representación pretende mostrar a partir de la mirada del equipo de mediación y de los diálogos mantenidos qué ecositema posible de trabajo existe, y cómo se relacionan las redes y grupos en el marco del Barrio. La idea es poder visibilizar el trabajo, las redes invisibles y los modelos de organización de Egia como un ecosistema complejo y orgánico y en constante transformación. (Hay que tener en cuenta que el proceso sigue abierto, y que por ahora hemos podido estar con estos agentes. Sabemos que faltan muchos otros como aitzarte, trebeska, reflex...)

El póster recoge tres espacios o zonas de trabajo en relación al campo de lo pedagógico, lo socio-cultural y las prácticas de espacio público. En estas zonas disponemos diversas entidades representadas con un círculo cuyo trabajo o problemática se ocupa principalmente en este ámbito. La distancia marca el grado de relación o proximidad entre ellas. Cada entidad además incluye una serie de elementos gráficos que caracterizan su trabajo y dan cuenta de sus potenciales y retos.



EGIATARRA
Nagusien topaleku eta sustengua
Espacio de encuentro y apoyo personas mayores
Lanerako beste modu eta erritmo batzuk
Otros modos-ritmos de trabajo
DANDAI
Emakumeen jabetzea eta formakuntza
Puesta en valor y formación de las mujeres
Beste eragileekin elkarlana
Vinculación con otros agentes
AUZOAK eta PARTE HARTZEA (SANTXO LEIZAOLA)
Hurbiltasuna, interlokuzioa
Interlocución, cercanía
Jarraipena, jasangarritasuna
Continuidad, sostenibilidad
To Auzoa Liburua
Egia Gure Auzoa Liburua
IPAR
